

Gratu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

**ZERGATIK DIRA IRAKURZALEAGOAK IRAKURLE HASI
BERRIAK TREBATUENAK BAINO?: LEHEN HEZKUNTZAKO
IKASLEEKIN EGINDAKO AZTERKETA**

Egilea: Aitziber Luperena Lobato

Zuzendaria: Maite Serna Martinez

Leioan, 2017ko irailaren 10ean

AURKIBIDEA

ABSTRACTA	3
1. JUSTIFIKAZIOA.....	4
2. MARKO TEORIKOA.....	6
2.1. Irakurzaletasunaren definizio baterantz.....	6
2.2. Irakurketaren garrantzia Lehen Hezkuntzako haurrentzako.....	6
2.3. Irakurketa nola sustatu	7
3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	12
3.1. Helburu orokorra.....	12
3.2. Helburu zehatzak.....	12
3.3. Hipotesiak	12
4. METODOLOGIA	13
4.1. Parte-hartzaileak.....	13
4.2. Tresna	14
4.3. Prozesua	15
5. EMAITZAK.....	16
5.1. Ikasleen irakurtzeko ohiturak, motibazioa eta irakurzaletasuna.....	16
5.2. Kanpoko eragileak: familia eta liburutegia	20
6. ONDORIOAK.....	22
7. BIBLIOGRAFIA.....	25
8. ERANSKINAK.....	26
8.1. 1.eranskina: 2.mailako ikasleei zuzendutako galdetegia.....	26
8.2. 2.eranskina: 4.mailako ikasleei zuzendutako galdetegia.....	29
8.3. 3.eranskina: 6.mailako ikasleei zuzendutako galdetegia.....	32
8.4. 4.eranskina: emaitzetako grafikoak.....	35

ZERGATIK DIRA IRAKURZALEAGOAK IRAKURLE HASI BERRIAK TREBATUENAK BAINO?: LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEKIN EGINDAKO AZTERKETA

Aitziber Luperena Lobato

ABSTRACTA

UPV/EHU

Irakurketak Lehen Hezkuntzako etapan dauden umeengan duen garrantzia kontuan hartuta, azken hauek irakurketaren bidez jasotzen dituzten onurak eta haurrak irakurzaletzeko gakoak ezagutu nahi izan ditugu marko teorikoaren bidez. Lan enpirikoan LHko ikasleei irakurketarekin duten harremanaren inguruan galdetu diegu: harekiko duten interesaren, motibazioaren eta ohituren inguruan, alegia, horiek guztiak aldagai batetik aztertuta: adina. Izan ere, interesa genuen haurren irakurketarekiko harremana adinarekin aldatzen ote den frogatzeko, eta arrazoiak aztertuta, konponketarako bideak bilatzeko. Horrez gain, azterketan irakurgaietako hizkuntza aukerari ere garrantzia eman zaio. Lanean, hortaz, ikerketa kuantitatibo bat aurrera eraman da eta adinak irakurzaletasunean eragina duela ondorioztatu da. Azkenik, adinaren eragin negatiboa ekidin eta irakurketaren sustapenean lagun dezaketen irtenbide berriak proposatu dira.

Irakurzaletasuna, irakurzaletasunaren sustapena, adina, irakurketaren onurak, liburutegia

Dada la importancia de la lectura para los niños de Educación Primaria, se han querido conocer, a través del marco teórico, los beneficios que estos últimos obtienen de la lectura y las bases para fomentar el gusto por ella. En el trabajo empírico, hemos preguntado a los/las alumnos/as de EP sobre la relación que tienen con la lectura: intereses, motivación y costumbres-lectoras, todo ello desde una variable: la edad. De hecho, hemos querido comprobar si la relación con la lectura cambia con la edad para así poder buscar soluciones, después de analizar las razones. Además, en esta investigación, también hemos dado importancia a la elección de la lengua a la hora de leer. Por tanto, se ha llevado a cabo una investigación cuantitativa y se ha llegado a la conclusión de que la edad influye en la lectura por placer. Por último, se han propuesto soluciones nuevas que pueden evitar la influencia negativa de la edad y ayudar en el fomento de la lectura.

Afición por la lectura, fomento de la lectura, edad, beneficios de la lectura, biblioteca

Due to the importance that reading have for Primary School children, this work analyses the benefits that reading brings to children and the bases to promote the reading for pleasure. In the empirical part, we asked some students of PE about the relationship they have with reading: interests for reading, motivation and reading habits, with one variable: the age. In fact, we wanted to know if the relationship with reading changes with the age in order to search for solutions after analysing the reasons. Moreover, we have also given importance to the choice of language, in this investigation. A quantitative investigation has been carried through and it has been demonstrated that the age has influence on reading for pleasure. Finally, new solutions which could avoid the negative influence of the age and help on the promotion of reading have been proposed.

Reading for pleasure, promotion of reading, age, reading benefits, library

1. JUSTIFIKAZIOA

Irakurtzen ikastea eta irakurtzen dena ulertzea oinarrizkoa da ez bakarrik hezkuntza-arloan. Izan ere, adituek erakutsi dutenez, irakurzaletasuna garatzeak hamaika onura dakarkio maiztasunez irakurtzen duen pertsonari. Dena den, ez da batere erraza Lehen Hezkuntzako ikasleengan, hots, 6-12 urte bitarteko umeengan, irakurketarekiko gustua sustatzea eta adituek eta irakasleek ohartarazten gaituztenez, zailtasun hori nabarmen gora doa haien adinak aurrera egiten duen heinean (irakurketa gaitasun defizienteak eskola porrota errazten du). Izan ere, Fizek eta hezkuntzan adituak diren beste batzuek (2000) baieztatzen duten legez, gero eta nagusiagoak izan, haurrak irakurketarekin gero eta gehiago aspertzen dira eta irakurketatik gero eta gehiago urruntzen dira, dela motibazio faltagatik, dela irakurgai interesgarririk aurkitzen ez dutelako. Ondorioz, nabarmendu egin ohi da irakurketan trebatzen hasten direnek trebatuenek baino motibazio handiagoa dutela.

Honi aurre egitea ez da erreza arrazoi desberdinengatik, besteak beste, etorkizuneko irakasleok irakurzaletasuna sustatzeko jasotzen dugun formakuntza ezagatik. Alegia, hau izan da, gaiaren inguruan gehiago ezagutzeko interes eta motibazioarekin batera, etorkizuneko irakasle moduan, lana aurrera eramateko arrazoietako bat: irakurketa sustatzeko prestakuntza gabezia nolabait gainditzea. Izan ere, norberak irakurketarekiko gozamina eta interesa erabat garatuta izateak ez du ikasleen zaletasuna bermatzen, aldiz, tresnak, baliabideak, teknikak ezagutu behar dira irakurketa haurren artean ondo sustatzeko, borondatez eta intuizioz gutxi egiten dela uste dudalako. Hau da, nahiz eta ikasleei irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko grina izan, ezinezkoa da ezer lortzea hura lortzeko baliabiderik ez dagoenean eta nola lortu ez dakigunean. Irakasleen Unibertsitate Eskolan, bada, ez da horretarako prestakuntzarik ematen eta etorkizuneko maisu-maistrak alor honen inguruan jakintzarik ez izatera eramaten ditu.

Lan honen bidez, beraz, gaiari egin diogun hurbilketa teorikoarekin irakurketak, eta irakurzaletasunak, haurrengan dituen garrantzia eta onurak, garrantzia eta irakurketaren sustapenerako gakoak zeintzuk diren agerian jarriko da. Horren ostean, errealitatearen diagnostikoa burutu dugu, Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6.mailako ikasleen irakurketa-ohiturak, motibazioa eta irakurzaletasuna eta haien familien eta eskola-liburutegiaren eragina aztertu direlarik. Horretarako, ikerketa kuantitatibo bat eraman dugu aurrera; galdetegi baten bidez, irakurketarekin zerikusia duten puntu desberdinak aztertu dira eta, ondoren, ikasleen erantzunak aldagai zehatz baten arabera (adinaren arabera,

konkretuki) aztertu dira, aldaketak adierazgarriak diren neurtzarren. Lana bi atal nagusitan banatu dugu. Lehenengo atalean, marko teorikoan, irakurzaletasunari buruzko informazioa bildu da hiru azpiataletan. Honi esker lortu nahi izan dudana irakurketaren esparrua hobeto ezagutzea eta neure burua profesionalki prestatzea izan da. Bigarren atala, lan enpirikoa bera, beste lau azpiataletan zatitu da: hasteko, lanaren helburuak (bai orokorra, bai zehatzak) eta hipotesiak zehaztu dira. Atal honen ostean, lanaren metodologiak azaltzen duen gure ikerketaren diseinua, prozedura eta garapena, eta azkenik, ikerketaren emaitzak, ondorioak eta zenbait proposamen azaltzen dira, lanaren mugak ere aipatzen direlarik.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Irakurzaletasunaren definizio baterantz

Irakurzaletasuna definitzen hasi baino lehen, ezinbestekoa da irakurketaren ekintzarekin desberdintzea. Izan ere, irakurketa irakurlearen eta testuaren arteko prozesu interaktiboa baino ez da (Camacho eta Lonbide, 2000). Modu horretan, gizarteko ezagutza kulturala eskuratzeko bidea eta pertsonen arteko desberdintasun sozialen parekatzerako erreminta da eta, jakina denez, irakurtzen eta idazten irakastea, gaur egun, derrigorrezko hezkuntzaren oinarritzko helburua da (Lomas, 2003). Irakurzaletasunak, ordea, “gozamenerako edo plazererako irakurketa” edo “solaserako irakurketa” hartzen du barnean eta, gainera, asko irakurtzea eta irakurketarekiko errespetuzko jarrera izatea ere eskatzen du (Lockwood, 2011). Honen inguruan hitz egiten dute, hain zuzen ere, Lomas, Mata eta Montek (2007, 9.orr) ere. Honela azaltzen dute irakurzale izatea zer den: “Es el recurso perseverante a los libros para satisfacer distintos intereses lo que permite afirmar que una persona es lectora” diotenean.

Hau kontuan hartuta, esan beharrekoa da ondo irakurtzeak ez duela esan nahi irakurtzeko zaletasuna dagoenik. Hori frogatzeko, 1998an Britainia Handian burututako NFER *Reading Attitudes Survey* ikerketara jo daiteke, ikasleek ondo irakurtzen zekitela eta, hortaz, irakurle moduan ziurtasuna zutela egiaztatu zuten arren, beste herrialde batzuekin alderatuta haien irakurketarekiko interesa oso txikia zela ondorioztatu baitzuten (1998 eta 2003, Lockwoodek aip., 2011). Powlingek honela azaldu zuen egoera horrek sortzen zion kezka:

Me preocupa el hecho de que, en la búsqueda constante de cosas que examinar mediante tests, estemos olvidando la auténtica finalidad, la verdadera naturaleza de la lectura y la escritura; y al forzar que estas cosas aparezcan de un modo que las divorcia del placer, estamos creando una generación de niños que quizá sean capaces de pronunciar correctamente cuando ven letra impresa, pero que odian y solo sienten hostilidad con respecto a la literatura (Powling eta cols., 2003; Lockwoodek aip., 2011, 24.or).

2.2. Irakurketaren garrantzia Lehen Hezkuntzako haurrentzako

Aditu askok bat egiten dute irakurketak izugarritzko onurak dituela maiztasunez irakurtzen duten umeentzat. Hasteko, irakurtzen, ulertzen eta idazten ikastean, ikasleek pertsonen eta kulturen artean komunikatzen ikasten dute. Gainera, honi esker, sentimenduak, fantasiak eta ideiak adierazten ikasten dute eta horrek guztiak, eskola-

eremurako ez ezik, bizitza pertsonal eta sozialerako balio diela konturatzen dira umeak (Lomas, 2003). Honen inguruan Aritmendi (2012) Lehen Hezkuntzako irakasleak ere ekarpen bat egiten du; bere esanetan, irakurtzeak norberaren hiztegia aberasten laguntzen du eta, horrek, nork bere burua ezagutzeko eta interpretatzeko aukera ematen du, adierazten laguntzen duelarik. Modu berean, irakurketaren bidez bi xede lortzen direla dio: alde batetik, plazer intelektual eta, bestetik, informazioaren eta ezagutzaren handitzea. Aipatzen duen moduan, irakurriz ikasten da eta ikasteko irakurtzen da.

Ez hori bakarrik: irakurketak baditu beste hainbeste onura ere. Girbésen (2016) hitzetan, umeen adimen, sormen eta irudimenaren hazkuntzan eragina du. Era berean, haien ikaskuntza-prozesuan ere laguntzen du, kontzentratzen laguntzeaz batera, umeek garunean informazioa biltzen, memorizatzen, ulertzen eta kontzeptu berriak barneratzen ikasten dute. Bitartean, irakasleen azalpenei arreta handiagoz aditzen ikasten dute. Horrez gain, irakurtzen duten haurrek bizkortasun mentala garatu, kulturaren inguruko ezagutza handitu eta hizkuntzaren (edo hizkuntzen) ezaguera hobetu ez ezik, haien ideiak eta sentimenduak erraztasun handiagoz adierazi, ziurtasuna handitu eta gizarteak dakartzan aldaketetara hobeto moldatzen dira. Ume hauek, gainera, irakurtzen ez dutenekin alderatuta, eskola arrakasta handiagoa izaten dute eta irakurtzeko eta idazteko gaitasun handiagoa garatzen dute (OCDE, 2002, Lockwoodek aip., 2011).

2.3. Irakurketa nola sustatu

Matak (2008) argitzen duen moduan, irakurle askok desberdindu egiten dituzte eskolako irakurgaien eta eskolatik kanpo irakurtzen direnen artean: lehenengoak astunak eta aspergarriak dira; desiragarriak eta suspergarriak, azkenak. Dena den, horrek ez du esan nahi plazera edo irakurzaletasuna ikasgelarekin bateraezina denik.

Horregatik, bereziki, oso garrantzitsua da irakurketa modu egokian lantzea. Hori dela eta, irakurketa pertsonen arteko komunikazioa errazten duen eta gozamenera eta ezagutza kulturalera eramaten duen praktika soziokultural bezala aurkeztu behar da, ikasleak motibatu ahal izateko (Lomas, 2003). Irakurketaren sustapena, ordea, ezin da edozelan egin.

Hasteko, irakurketaren sustapenak liburuak guztien eskura egoteko aukera eman behar du (Mata, 2008). Liburuak gomendatu ahal izateko, haurrek irakurketa-prozesuaren erdigunea izan behar dute, beraien interes eta gustuak ezagutu behar dira

eta haiekin pazientziaz, konfiantzaz eta konplizitatez jardun behar da (Girbés, 2016; Mata, 2008). Horregatik, bereziki, haienzako irakurketa egokia bilatu eta aurkitzea garrantzitsua da (ez helduari gustatuko zaiona); irakurketak haien asebetetzerako balio behar du. Ezin dira haien aukerak gutxietsi, batez ere oraindik formakuntza- eta ikaskuntza-prozesuan daudenean (Girbés, 2016). Atzerago esan bezala, irakurketak mundua eta gizartea ulertzen laguntzen die ume eta gazteei. Zoritxarrez, ikasleek duten gaitasun sensorial eta kognitiboa gutxiesten dira sarritan eta, ondorioz, proposatzen diren irakurgaiak kalitate literario gutxikoak (Aritmendi, 2012) edo balio literario handikoak izaten dira, baina ez euren interesekoak.

Baina nola aukeratu irakurgai aproposa? Bada, Coetzeek (2010, Aritmendik aip., 2012) azpimarratzen duen legez, ikasleek erraztasun handiz antzeman ohi dute irakurgaia irakaslearen gustukoa eta harentzako garrantzitsua den. Tamalez, irakasleak testuak berarentzako ardurarik ez duela erakusten duenean, ikasleek ere ez diote testuari garrantzirik ikusten eta, ondorioz, motibazioa eta interesa galdu egiten dituzte. Beraz, irakasleak irakurketarekin gozatzen duela transmititzea garrantzitsua da ikasleek plazerezko irakurketa garatzen joateko. Hau da, ikasleek haien irakasleak irakurketarekin gozatzen duela ikusi behar dute. Zorionez, ikerketa baten arabera, helduen artean irakasleak dira plazeratik irakurtzen duten gehienak, haien %71 baitira irakurzaleak (LEGG, 2006, Lockwoodek aip., 2011). Horretaz aparte, irakurketari kutsu negatiboa ematen ekidin behar da; izan ere, zigor moduan irakurtzera behartzeak ez du irakurketa erakargarria egingo. Aurreko guztia ez gertatzeko, gomendagarria da eskolan irakurtzeko hautatzen diren testuak laburrak (luzera txikikoak), egitura itxikoak eta esanguratsuak izatea. Are gehiago, lantzen diren testuek genero desberdinetakoak izan behar dute eta, ikasleen ulergarritasun maila kontuan izanik, haien interes eta ezagutzei erantzun behar diete (Aritmendi, 2012).

Ikasleek ulergarritasun maila handitzeko, irakurritako testuen inguruko eztabaida kolektiboak egin daitezke. Horien bidez, ulergarritasuna handitzeaz gain, epe-luzerako memoria hobetu eta pentsamendu kritikoa garatzen da. Gainera, idatzizko testuan erabilitako egiturak eta lokailuen garrantzia ulertzen ikasten da (Lomas, 2003).

Irakurketa eta idazketa nola lantzen eta sustatzen diren kontuan hartuta, aipatu beharrekoa da Hezkuntza Sistemaren barnean dauden pertsona guztiek parte hartu behar dutela eta guztiek ados egon behar dutela irakurketa, eta are gehiago plazerezko

irakurketa, haurren garapenerako onuragarria dela (Lockwood, 2011). Gainera, Lomasek (2003) gehitzen duen moduan, irakurketa eta idazketa ez dira arlo linguistikoko irakasleen ardura bakarrik, eskolako irakasle guztien (nahiz eta beste arlo eta ikasgai batzuetakoak izan) ardura ere bada. Irakasle guztiak dira hizkuntzetako irakasleak haien arloetako edukiak transmititzeko hizkuntza erabiltzen duten heinean. Izan ere, gerta liteke ikasleek gainerako ikasgaietako ariketen enuntziatuak ez ulertzea, ez ikasgaia ulertzen ez dutelako, baizik eta enuntziatua edo azalpena bera ez dagoelako ondo formulatuta. Horregatik, irakasle guztiek testuak ulertzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak zeintzuk diren jakiteko, ezagutza linguistikoa eta pedagogikoa behar dute. Honen inguruan, Matak (2008) dio irakurketaren suspertzea liburutegi, eskola, familia, liburu-denda eta ikasleak irakurketara hurbilduko dituen gainerako arloei dagokiela eta haien artean ez dela oztoporik egon behar.

Eskolarekin lotuta, García Muñizen (2010) arabera, irakurzaletasuna sustatzeko, giro egokia sortu behar da ikasgelan edo liburutegian; giroak lasaia eta motibatzailea izan behar du, irakurketara bultzatzen dutenak. Espazioak ondo antolatuta egon behar du, inguruko altzari eta apaingarriek erakargarriak izan behar dute eta ondo argiztatuta egon behar du, besteak beste. Gainera, eskaintzen diren liburu eta ipuinek ere deigarriak izan behar dute. García Muñizek (2010) dioen moduan, giro tristeak (liburuak zaharrak eta nahastuta, iluminazio eskasa eta eserleku deserosoak) ez du irakurtzera animatzen. Era berean, liburuekin topatzeko eta irakurtzeko aukerak handitu behar dira, irakurketaren sustapena ezin baita noizbehinkako ekintzetan oinarritu. Esan beharrekoa da liburuz inguratuta bizi arren, horrek ez duela irakurketa eta irakurzaletasuna bermatzen: horretara hurbildu eta bidea errazten du, baina ez du ezer ziurtatzen (Mata, 2008).

Dena den, Gil Calvok (1985) (Lomasek 2003an aipatua) dioen moduan, azken urteetan, jatorri soziokultural desberdinetako eta gaitasun, motibazio eta jarrera desberdinetako ikasle-kopuruaren igoerak zaildu egin du ikas- eta irakas-prozesua eta, beraz, baita irakurtzearen eta irakurtzen dena ulertzearen zeregina ere.

Honengatik guztiagatik, Lomasek (2003) irakurketa nola bideratu erabakitzeko irakasleak bere buruari egin beharreko bi galdera proposatzen ditu: “zer dakite ikasleek?” eta “zer egin dezaket nik haien ezagutzak handitzeko?” Bada, testuko ideia nagusia identifikatzen, laburpenak egiteko estrategiak eta teknikak erabiltzen eta testuko

antolatzaileak (lokailuak, informazio metatestualak...) identifikatzen lagundu behar die. Horrez gain, arrazoiketa kritikoa garatzen ere lagundu behar die (Lomas, 2003). Argi geratu behar da, hala ere, aipatutakoa Lomasen proposamena baino ez dela. Bestalde, Aritmendik (2012) beste hiru galdera proposatzen ditu irakaslearentzat, irakurgaiak hautatzerako orduan gogoan hartu beharrekoak: 1) Zergatik aukeratu dut testu hau?; 2) Zer ekarpen egiten dizkie testu honek ikasleei?; 3) Irakurketatik zer erantzun jaso ditzaket ikasleengandik?

Irakurketa- eta idazketa-prozesuan, ikasleek nolako laguntza pedagogikoa behar duten jakiteko, honakoak kontuan hartu behar dira, besteak beste (Tapia, 1995; Lomasek aip., 2003):

1. Irakasleak ikasleak irakurketa-prozesuan erabiltzen dituen estrategiak kontuan hartu eta ebaluatu behar ditu.
2. Irakurketaren edukiari buruz ikasleek aurretiaz dituzten ezagutzak eta aurre-ideiak.
3. Informazio garrantzitsua eta informazio osagarria bereizteko ikasleek duten gaitasuna.
4. Autorearen intentzinoa identifikatzeko eta ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak desberdintzeko erabiltzen dituzten estrategiak.

Irakurketaren sustapenean, familiek izugarrizko eragina dute (García Muñiz, 2010). Horregatik, gurasoek seme-alabak jaioberriak direnetik irakurketara ohitu behar dituzte, haiek ereduia izan behar direlarik; hau da, umeek haien gurasoak irakurtzen ikusi behar dituzte. Are gehiago, liburuak oparitzeko ohitura sustatu behako lukete (ez bakarrik urtebetetze eta Gabonetan), eta seme-alabekin eskolako eta liburutegiko irakurketa-ekintzetan parte hartu beharko lukete. Hala eta guztiz ere, Girbések (2016) nabarmentzen duenez, gurasoek egiten dituzten ekintza guztiek ez dute ziurtatzen umeek irakurtzeko ohitura hartzerik, eta are gutxiago, irakurzaletasuna garatzerik. Izatez, irakurketa ez litzateke inposatu beharko, irakurtzeko nahia eta kuriositatea berez sortu behar baitira. Horretarako, umeak estimulatu behar dira eta irakurtzeko arrazoiak eman behar zaizkie, beti ere pazientziaz eta begirunez, inoiz ere ez oihuekin eta zigorrekin. “El método definitivo para tener hijos lectores” en aitatzen den bezala,

No hay recetas milagrosas para contagiar el gusto por la lectura. Para conseguirlo nos hará falta confianza, paciencia y constancia, predicar con el ejemplo y sumar complicidades para hacer del libro un objeto cotidiano, interesante y atractivo. Lo lamento, pero todavía no se ha inventado una píldora capaz de poner del revés mente y cuerpo para inocular el virus de la lectura compulsiva (Girbés, 2016, 3.or).

García Muñizek (2010) irakurzaletasuna bultzatzeko eskolako liburutegian elkarrekin lantzeko interesgarriak diren zenbait proposamen egiten ditu, hezkuntza komunitate osoari zabaldu beharko liratekeenak, hala nola, ipuin kontaketak, album ilustratua, irakurle onentzako sariak eta motxila ibiltaria.

Matak (2008) ere, jolasa proposatzen du irakurketa sustatzeko ekintza ludiko moduan. Bere ustez, ikaskuntza eta jolasa mundu paralelo eta kontrako moduan aurkeztuak izan dira beti; hala ere, bien arteko antzekotasunak bistakoak dira, jolasak dituen zenbait ezaugarri (bakartzea, kontzentrazioa, munduarekiko mementoko interesik eza...) irakurketarekin lot baitaitezke. Irakurketak, jolasak bezala, esfortzu mentala eta fisikoa eta jarrera langilea eskatzeaz aparte, jakingura, kuriositatea, abentura eta zalantza sentitzeko beharra ere eskatzen ditu; beraz, irakurlearen jarrera jolasten duen pertsonaren jarreraren antzekoa da. Irudimenak eta sormenak bietan hartzen dute garrantzia izugarria. Matak (2008, 96.or) azpimarratzen duen moduan, “Meterse en un libro es como meterse en un juego: hay que dejarse llevar, nada está determinado de antemano”. Jolasaren eta irakurketaren bitartez, azken batean, aztertu, esperimendu, aurkitu, analizatu, sentitu, sortu eta gozatu egiten du, besteak beste, irakurleak. Horri esker, bere identitatea eraikitzen du. Modu honetan, Picardek (1986, Matak aip., 2008) dioen legez, irakurketa helduek jolasteko duten modurik intelektual eta zibilizatuena dela esan daiteke. Baina, horretarako, jolasten eta nola jolastu ikasi behar da lehenengo eta, beraz, jolasarekin gozatzen laguntzen duten pertsonak prestatu behar dira.

Laburbilduz, hezkuntzaren helburua idatzizko kultura menderatzen duten herritar alfabetatuak eraikitzea izan beharko litzateke. Eta, beraz, zentzua duten testuak irakurtzen eta ulertzen lagundu beharko lieke, ez bakarrik koherentzia eta kohesioa duten testuak, baizik eta haien bizitzarako zentzua duten testuak, dibertitu, hunkitu eta adierazten eta ulertzen laguntzen dietenak (Lomas, 2003).

3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

3.1. Helburu orokorra

Lan honen bidez, helburu desberdinak lortu nahi izan dira. Hasteko, eskola konkretu bateko Lehen Hezkuntzako ikasleek irakurketarekiko duten interesa zein den ezagutzea da helburu nagusia. Honekin batera, eskolaumeek irakurketarekin zein harreman duten ezagutu nahi izan dut, baita haien testigantzatik aztertu adinean gora joan ahala harreman hori aldatu den, eta zergatik.

3.2. Helburu zehatzak

- Ikasleek irakurtzeko dituzten ohiturak ezagutzea.
- Ikasleek, adinarekin irakurketa gaitasuna handitu ahala, irakurzaletasuna garatzen duten ala irakurzaletasuna aldatu egiten den aztertzea.
- Adinak, oro har, ikasleen gustuetan, interesetan, ohituretan, motibazioan eta hizkuntza aukeran eragina duen ezagutzea.
- Ikasleek irakurtzeko nahiago duten hizkuntza zein den ezagutzea, eta euren arrazoiak, baita adinarekin hizkuntza hautua aldatzen den aztertzea ere.
- Eskola-liburutegira joateko ohitura adinarekin aldatzen den aztertzea.

3.3. Hipotesiak

Jarraian ematen diren hipotesiak irakurritako teoria guztian eta aztertutako eskolako umeengan ikusitakoan oinarrituta daude:

- Adinarekin, ikasleen irakurzaletasun-mailak beherantz egiten du gorantz egin beharrean; hau da, gero eta nagusiagoak izan, gero eta irakurketarako interes txikiagoa dute.
- Adinarekin, eskola-liburutegira joateko joerak beherantz egiten du.
- Adinak aurrera egin ahala, ikasleek nahiago dute gaztelaniaz irakurtzea.
- Ikasleen irakurtzeko ohituretan guraso eta anai-arreba irakurleak izateak irakurzaletasunean laguntzen du; aldiz, familia ez irakurleak dituzten haurrek ez dute irakurzaletasuna berdin garatzen.

4. METODOLOGIA

Bermeoko ikastetxe publikoko ikasleek irakurketarekiko duten interesa, motibazioa eta irakurketa-ohiturak zein nolakoak diren ezagutzeko ikerketa kuantitatibo bat egin da. Are gehiago, aztegai guztien zergatia ere ezagutu da, ikasleek haien arrazoiak eman baitituzte. Horretarako, galdeketa bat egin zaie Lehen Hezkuntzako maila desberdinetako ikasleei adinak irakurzaletasunaren garapenean eragina duen aztertze. Burututako ikerketa horretarako prestatutako galderak ahalik eta itxienak izan daitezen saiatu da, lortu beharreko informazioa esanguratsua izan dadin.

4.1. Parte-hartzaileak

Ikerketa hau aurrera eramateko, gorago aipatu bezala, Bermeoko ikastetxe bateko Lehen Hezkuntzako 69 ikasle inkestatu dira. Erdia baino gehiago, 40 ikasle (partaideen %58), mutilak izan dira eta 29 ikasle (parte hartzaileen %42), neskak. Dena den, hasierako lagina 69 ikaslekoa bazen ere, 62 parte-hartzailearen emaitzek baino ez dute balio izan. Hau da, zazpi ikasleko galbahea egon da, hauen emaitzak kontraesankorrak edo arretarik gabe eta edonola erantzunda egon direla nabarmena izan delako.

Aipatutako 62 ikasle horietatik, 21 haur 2.mailakoak izan dira, hau da, ikasleen %34. Era berean, 21 ikasle horietatik, 9 (%43) neskak eta 12 (%57) mutilak izan dira. Galdeketa gauzatu den unean, 2.mailako ikasle horietako 16k 7 urte izan dituzten artean, gainerako 5ek 8 urte izan dituzte.

Parte-hartzaileen 24 ikasle (%39) LH 4.mailakoak izan dira. Hauetatik %33 baino ez dira neskak izan (24tik 8) eta gehienak, %66 (24tik 16), mutilak. Maila honetako partaide guztietatik 14k 9 urte eta 10ek 10 urte dituzte.

Azkenik, partaide guztien artean, %27 Lehen Hezkuntzako azken mailako, hots, 6.mailako ikasleak izan dira. Horrek esan nahi du 17 izan direla ikerketan esku hartu duten haurrak. Hauetatik 10 (%59) neskak izan diren bitartean, 7 (%41) izan dira mutilak. Gainera, 7 ikaslek 11 urte eta 10ek 12 urte izan dituzte, galdeketaren momentuan.

Inkesta bete duten ikasleez gain, aipatzekoa da irakurketa eta irakurzaletasunaren gaian profesionala den zentro horretako beste pertsona batek ere parte hartu duela lan honetan. Galdeketa burutu aurretik, bada, ikastetxeko liburutegian izugarritzko esperientzia duen liburutegiko arduradunari elkarriketa txiki bat egin zaio liburutegian

sustatzen diren ekintza eta jardueren berri izateko. Berari esker, liburutegiko funtzionamendua sakontasunez ezagutu eta inkestan ikerketarako egokiak eta interesgarriak diren galderak planteatu ahal izan dira. Argitu beharrekoa da, ordea, bere erantzunek ez dutela ikasleei egindako inkestatik ateratako datuetan eraginik izan; hau da, liburuzainarekin izandako elkarriketak balio informatiboa baino ez du izan, emandako informazioa ekarpen modura eta gaian hobeto kokatzearen erabili baita.

Eskolako liburuzainak ezagutzera eman duen moduan, liburutegia 2016an 20 urte bete zituen EOEK-ACEX programaren barruan dago. Horrez gain, eskolan Amara Berri sistema erabiltzen denez, liburutegiak ere sistema bera du; horrek esan nahi du liburutegiaren erabilera autonomoa sustatzen dela, ardatz-metodologiko gisa¹ (Amara Berri Sistema, d.g.). Liburutegian ekintza eta jarduera desberdinak sustatzen dira eta haietako batzuk, 3.zikloan lantzen diren “prentsa” eta “txikibloga”, zehatz-mehatz, hezkuntza-curriculumaren barnean jasotzen dira. Gainerakoak, ordea, liburuzainak proposatutakoak dira, hala nola: idazleen bisitak, idazle eta ilustratzaileekin kontaktuan jartzea, antzerkiak, lehiaketak eta pelikulak. Familiek ere, eskola-ordutegia bukatu eta gero, aukera dute, liburutegira irakurtzera, IKTak erabiltzera... joateko.

4.2. Tresna

Gorago azaldu den moduan, 2., 4. eta 6.mailako ikasleek galdeketa bat bete dute (ikus, 1., 2. eta 3.eranskinak). Galdeketaren bitartez ikasleek adinean zehar duten irakurzaletasunaren garapena eta balizko arrazoiak ebaluatuko dira eta adinak irakurketan eraginik duen ala ez ezagutuko da.

Burututako inkesta anonimoa izan da eta partaideei izen-abizenik ez idazteko eskatu zaie. Honi esker, ikasleak libre sentitzea nahi izan da, inolako presiorik jasan gabe eta uste zutena erantzuteko askatasun osoz. Hala ere, inkesta betetzen hasi aurretik, identifikazio datu batzuk betetzeko eskatu zaie: sexua, adina eta ikasmila. Horietaz aparte, 12 galdera egin zaizkie guztira (guztiak itxiak, bat izan ezik) eta helburu desberdinekin. Hasierako galderak, gaian kokatzeko, ikasleen irakurzaletasunari eta irakurketa ohiturei buruzkoak izan dira (ea irakurtzea gustatzen zaien, ea behartuta irakurtzen duten...) eta azkenak liburutegiko ekintzen ingurukoak izan dira. Hortaz,

¹ Amara Berri Sistema: sustatzen dituen printzipio metodologikoen artean autonomía, sozializazioa, aktibitatea, sormena eta askatasuna daude (Amara Berri Sistema, d.g). Horiexek sustatzen ditu eskola liburutegiak ere.

alde batetik, galdera batzuk haien gustu eta interesak ezagutzera bideratutakoak izan dira eta gainerako galderak haien irakurtzeko ohituren berri izateko planteatu dira. Galdera batzuk National Literacy Trusten (2005) oinarritu diren bitartean (Lockwood galdetegi horretan oinarritu zen, 2011), gehienak guk sortutakoak izan dira ikastetxearen eta ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz eta ezagutu nahi genuenaren arabera.

Galdeketa euskaraz jaso da eta aurretiaz emandako azalpenak ere euskaraz egin dira (D ereduko ikastetxea izanik, parte-hartzaileek ez dute galdeketa betetzeko eta azalpenak ulertzeko arazorik izan).

4.3. Prozesua

Azterketa ikasmaila desberdinetan gauzatu da adinaren garapena antzeman eta emaitzak esanguratsuagoak izan daitezzen. Haur Literaturaren Nazioarteko Eguna aurreko asteburuan zela aprobetxaturik, apirilaren 3a, astelehena, erabili zen inkestak pasatzeko. Horretarako, irakurketa saioak erabili ziren, gaiarekin lotura estua zutelako.

Hasteko, galdeketa helburua azaldu zitzairen eta galdera guztiak irakurri zitzaizkien. Ondoren, azterketa akademikoa ez zela argitu zitzairen eta, beraz, zintzotasunez eta lasaitasunez erantzuteko eskatu zitzairen, haien notan eraginik ez zuela izango argi utziz. Behin zalantzak argituta, inkesta betetzeari ekin zioten.

Aipatzekoa da, galderak erantzuten zeuden bitartean, 4. eta 6.mailako ikasleek zalantza gutxi izan zituztela eta 2.mailakoak, txikiak, alegia, izan zirela erantzuteko zailtasun handiena izan zutenak. Ondorioz, nagusienek bakarrik jardun zuten artean, adin txikikoen gehiengoak laguntza behar izan zuen galderari behar bezala erantzuteko. Beraz, irakasleak izan zituzten ondoan galderak irakurri eta, ez ulertzekotan, beste modu batean azaltzeko.


Behin inkestak beteta, datuak Excel programaren bitartez prozesatu dira, informazioa argi eta modu bisual batean helarazten laguntzen baitu. Datu prozesadore honi esker, estatistikak eta grafiko objektiboak atera ahal izan dira.

5. EMAITZAK

5.1. Ikasleen irakurtzeko ohiturak, motibazioa eta irakurzaletasuna

Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6.mailako 62 ikasleri irakurzaletasunaren inguruko inkesta bat egin ostean, atera diren emaitzak aurkeztuko dira aurrerantzean.


Irakurtzea gustuko duten galdetzean, ikasleen %58k, hau da, erdiak baino gehiagok, “asko” eta “nahiko” erantzun dute. 1.irudia ondo aztertuz gero, ordea, irakurketarekiko grinak adinarekin etengabeko beherazko joera duela antzeman daiteke; izan ere, 2. eta 4.mailako ikasleen %62 eta %38,



1.irudia: irakurtzea gustatzen zaizu?


hurrenez hurren, irakurle gogotsuak diren bitartean, 6.mailako gehienei (%48ri) ez zaie irakurketa gehiegi gustatzen.

Era berean, irakurtzeko nahiago duten hizkuntza kontuan izanik, eta 2.irudian ikus daitekeen legez, %34k euskara aukeratzen dute; ehuneko horretatik, gehiengoa (%85) 2. eta 4.mailako ikasleak dira. Datuek erakusten dute 6.mailako ikasle gehienek gaztelania dutela irakurtzeko gustukoaren duten hizkuntza (17 ikasletik 10ek). Eman dituzten arrazoien artean “hobeto ulertzen dut” eta “errazagoa egiten zait” izan dira aipatuena. Datu hau adierazgarria egiten da kontuan izanik euskal herri batean eta D eremuan ikasten dutela –Bermeon, 2011ko eroldaren arabera, biztanleen %72,7 euskalduna da (Eustat, d.g.) eta, beraz, gehienek euskara jaiotzetik egunero entzuten dutela. Aipatzekoa da, hala ere, ikasleen %31k edozein hizkuntzatan irakurtzen duela, bai “hizkuntza guztiak ikasi behar direlako”, bai “hizkuntza guztiakin ondo konpontzen direlako”.




2.irudia: Zein hizkuntzatan gustatzen zaizu irakurtzea?

Inkesta bete duten 62 ikasleetatik 30 (%48) guztiz ados daude irakurtzea dibertigarria eta entretenigarria dela: horietatik, 29 ikasle 2. eta 4.mailakoak direla azpimarratu behar da. 6.mailakoen erantzunak aztertuz gero, ikus daiteke %53k irakurketa ekintza aspergarrizat daukatela (ikus, emaitza orokorrak 3. eta 4.irudietan, non lek “ez nago batere ados” eta 4k “guztiz ados” esan nahi duten).



Ezkerrean, 3.irudia (Irakurtzea aspergarria da (n=62) eta eskuman, 4.irudia (Irakurtzea dibertigarria eta entretenigarria da (n=62)


Dena den, hiru mailetako ikasleek bat egiten dute irakurtzea ez dela zaila, parte hartzaileen %82k horren inguruan galdetu zaienean “ez nago batere ados” edo “ez nago ados” erantzun baitute. Zailtasun maila handiena dutenak inkestatu gazteenak izan dira, 2.mailakoak alegia, haien arteko %34k adierazi baitute irakurtzea zaila dela (ikus, 5.irudia). Horrez gain, parte hartzaileen %52k irakurketa garrantzitsua dela uste du.




5.irudia: Irakurtzea zaila da

Irakurgaien inguruan, 6.mailakoen %35k (17 ikasletik 6k, alegia) ez du bere gustuko libururik aurkitzen. Datu hau azpimarragarria egiten da, batez ere 2. eta 4.mailako ikasleekin alderatzen badugu. Izan ere, 2.mailakoen ia gehiengoak (21 ikasletik 20k) eta 4.mailakoen gehienek (24tik 20k) haien gustuko liburuak aurkitzen dituztela adierazi du. Izan daiteke proposatzen zaizkien liburuak haien adinerako aproposak ez izatea eta hizkera edo hiztegi zaila erabiltzea edo, irakurgaiak nahiz eta adinera egokitutakoak izan, haien arreta ez deitzea, bai gaiak interesgarriak ez direlako, bai gai ez-gaurkotuak direlako.

Irakurtzeko ohiturei buruz, ikasleen %87k eskolan baino ez dutela irakurtzen aitortu dute. Liburutegiari dagokionez, 6.mailakoen harekiko interesa jaitsi egiten dela nabarmen daiteke, inkestatutako 6.mailakoen %65k dioen moduan (ikus, 6.irudia –irudi horretan 1 zenbakiak liburutegira joateko zaletasuna izatearekin “ez nago batere ados” eta 4k “guztiz ados” esan nahi dute). Modu berean, bakarka edo taldean irakurtzeko ohitura adinarekin ere aldatu egiten dela ikus daiteke; izan ere, 7-8 urteko haurrek taldean irakurtzea nahiago duten bitartean (2.mailakoen %33k), 9-12 urte bitarteko umeek banakako irakurketa nahiago dute taldeko irakurketa baino (4.mailakoen %33k eta 6.mailakoen %33k) (ikus, 5.eranskineko 3.irudia).



6.irudia: Liburutegira joatea atsegin dut




7.irudia: Nahiago dut beste gauza batzuk egin irakurtzea baino

Ikasleei irakurketaren eta beste edozein ekintza bat egitearen artean hautatzeko aukera eman zaienean, %40k irakurtzea baino beste ekintza bat nahiago duela adierazi du, hau da, irakurtzea ez den beste ekintza bat egitearekin ados daudela erantzun dute. 7.irudia behatu eta datuak osotara aztertzen badira, 4.mailakoen erdia eta 6.mailakoen %59 “gutziz ados” agertu dira beste ekintza

batzuk egiteko nahian; 2.mailakoek, ordea, irakurketari lehentasuna ematen diote beste ekintza batzuen aurretik.

“Zergatik irakurtzen duzu?” galderaren erantzunek datu deigarriak uzten dituzte (galdera honetan ume bakoitzak erantzun bat baino gehiago markatzeko aukera izan du). Alde batetik, 2. eta 4.mailako ikasle gehienek “gustatzen zaidalako” irakurtzen dutela adierazi dute (33 ikasle), eta baita haien etorkizunerako garrantzitsua delako eta bizitzarako erabilgarria delako. Bestalde, 4.mailako ikasle bakar batek betekizun moduan irakurtzen duela aitortu du, baina nabarmendu behar da 6.mailan derrigorrezko irakurketak izugarrizko gorakada duela. Izan ere, 11-12 urteko 17 ikasleetatik 9k behartu egiten dituztelako irakurtzen dutela onartu dute. Gainera, “ez dut irakurtzen” baieztapenarekin ere hiru ikaslek bat egin dute maila honetan. Emaitza hauek argi eta garbi ikus daitezke hurrengo grafikoan (8.irudia):



8.irudia: Zergatik irakurtzen duzu?

Datu hauekin batera ikus daiteke 2. eta 4.mailako ikasle gehienek irakurtzen dutela nahi dutelako, gustuko dutelako... Motibazio pertsonalagatik irakurtzen dutela aitortzen dute, hortaz, barne-motibazioak eraginda. Hala ere, 4.mailan kanpo-motibazioaren (kanpo-motibazio mota honen barruan sartzen da guraso edo familien eta irakasleen eragina, seme-alabak edo ikasleak irakurtzera bultzatzen baitituzte) eraginez irakurtzen duten ikasle-kopurua pixkanaka handitu eta azken etapan nabarmen igotzen da. 6.mailako ikasleek, alegia, kanpotik eskaintzen zaien zerbaiten truke irakurtzen dute, haietako batzuk irakurketa haien onerako dela kontziente diren arren. Halere, motibazio instrumentala ere ikus daiteke ikasle batzuen artean. Hau da, ikasle gutxi batzuek irakurketa baliabide moduan ikusten dute eskolako edo etxeko lanak egiteko, komunikatzeko...

Bestetik, parte hartzaileen %39k baino ez du hasten dituen liburuak bukatzen eta liburuak irakurtzen inoiz ere amaitzen ez dutenetatik gehienak azken etapakoak dira (6.mailakoen %12).

Horrez gain, parte hartzaileen erdiak oheratzean irakurtzen du eta %23k arrastian edo gauean. Hala ere, %51k ez daki egunean zenbat denbora eskaintzen dion irakurketari; bai, ordea, lehen ziklokoek. Azken hauek, bada, egunean ordu bat baino gutxiago irakurtzen dutela adierazten dute.


5.2. Kanpoko eragileak: familia eta liburutegia

Familien irakurzaletasunaren inguruan ere galdetu zaie inkestatuei. Gurasoen eta anai-arreben irakurtzeko ohiturei buruz ikasleek adierazi dute gurasoen %52k “asko” irakurtzen dutela, %12k “nahiko”, %24k “pixka bat” eta gainerako %12k “ez gehiegi”. Era berean, anai-arreben artean ere irakurketarako zaletasun handia (%39) dagoela nabari daiteke. %13k “nahiko”, %18k “pixka bat” eta %8k “ez gehiegi” irakurtzen dutela diote. Gainerako %23k ez dauka anai-arrebarik. Hau kontuan hartuta, esan daiteke bai gurasoei eta bai anai-arrebei irakurtzea “asko” gustatzen bazaie ere, seme-alaba guztien artean ez dela beti zaletasuna zabaltzen.

Galdetegian egin zaizkien azken hiru galderak ikastetxeko liburutegiarekin lotura zuzena dute. Lehen galderari dagokionez, ikasleen %31 ez doa inoiz liburutegira bakarrik: hauen %37 6.mailakoak, %33 4.mailakoak eta %30 2.mailakoak dira. Datuek adierazi bezala, nahiz eta desberdintasuna handia ez izan, adinak gora egin ahala,

liburutegira joateko nahia txikitu egiten da. Gainerako %69k bai erabiltzen du liburutegia bakarkako lanak egiteko: hauetatik, %47 etxerako lanak egitera (gehienak 4.mailakoak), %31 liburuak irakurtzera eta gozatzera, %12 teknologia berriak erabiltzera eta %10 informazioa bilatzera joaten dira.

Liburutegiko lehiaketei (argazki-, marrazki-, ipuin-lehiaketak...) erreferentzia eginez, adinak ere eragina duela antzeman daiteke. Izan ere, irakurzaletasunarekin gertatzen ez den bezala, hemen, paradoxikoki, 2.mailakoak dira liburutegiko lehiaketetan parte hartzen ez duten gehienak (hots, %33). 4.mailakoen %29k eta 6.mailakoen %47k, berriz, noizean behin parte hartzen dute aipatutako lehiaketetan (ikus, 9.irudia).



9.irudia: Liburutegiko lehiaketetan edo liburutegiak parte hartzen duen lehiaketetan parte hartzen duzu?

Bukatzeko, liburutegian eskaintzen diren ekintza guztietatik bereizi egin behar dira ikasmailaren arabera. Hasteko, 2.mailan eskura dauden ekintza guztietatik filmek (10 boto), idazleen bisitek (7) eta lehiaketek (7) arrakasta handien dituztenen artean dira. Aitzitik, egun berezietan sustatzen diren ekintzek (4), idazle eta ilustratzaileen informazioa jasotzeak (4), puzzleak (4) eta erakusketek (3) ez dituzte haurren interesa pizten. 4.mailakoen kasuan, idazleen bisitek, lehiaketek eta idazleak eta ilustratzaileak ezagutzeko ekintzek izaten dute harrera onena (10, 7 eta 7, hurrenez hurren). Adin honetako umeei gutxien gustatzen zaizkien ekintzen artean fitxategien sorkuntza (2), komikien sorkuntza (1) eta idazleekin kontaktuan jartzea (1) daude. Azkenik, 6.mailako ikasleek egiten dituzten ekintzak kontuan harturik, txikibloga (10), prentsa (10) eta filmak (6) daude eta lehen biak dira ikasle nagusienentzat estimatuenak. Halaber, gutxien estimatzen dituzten ekintzak komikien, ipuinen eta fitxategien sorkuntza dira

(0). Orotara, beraz, txikibloga, prentsa, filmak eta idazleen bisitak dira arrakasta handien duten ekintzak. Aldiz, komikien eta fitxategien sorkuntzak eta idazleekin kontaktuan jartzeak ez dute ikasle gehien arreta deitzen (ikus, 1.taula).

EKINTZAK	2.MAILA	4.MAILA	6.MAILA	BOTOAK GUZTIRA
Ipuin kontaketak	5			5
Ipuinen antzeppenak	5			5
Puzzleak	4			4
Idazleak eta ilustratzaileak ezagutzen	4	7	5	16
Lehiaketak	7	7	4	18
Liburuetan oinarritutako marrazki eta deskribapenak	6	3	2	11
Idazleen bisitak	7	10	5	22
Idazleekin kontaktuan jartzea	5	1	1	7
Filmak	10	4	6	20
Erakusketak	3	5	2	10
Egun berezietako ospakizunak	4	4	5	13
Fitxategien sorkuntza		2	0	2
Ipuinen sorkuntza		4	0	4
Komikien sorkuntza		1	0	1
Prentsa			10	10
Txikibloga			10	10
Booktrailerra			1	1

1.taula: Liburutegian egiten diren ekintzetatik zein da gehien gustatzen zaizuna?

Laburbilduz, esan daiteke adinak aurrera egin ahala irakurzaletasunak beherazko joera duela, behintzat Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan. Ikusi ahal izan denez, 6.mailako ikasleek 2.mailakoek baino prestasun gutxiago dute irakurtzeko eta, gainera, liburutegira maiztasun gutxiagorekin joan ohi dira. Modu berean, 6. mailakoek irakurtzea aisialdirako azken aukeratzat daukate, nahiago baitute beste gauza batzuk egitea irakurtzea baino. Hori gutxi ez balitz, ikasle nagusi askok onartzen dute “behartuta” sentitzen direlako irakurtzen dutela.

6. ONDORIOAK

“Emaitzak” atalean nabarmendu den moduan, Lehen Hezkuntzako ikasleek ez dute adinean zehar irakurzaletasuna garatzen; alderantziz, harekiko gero eta interes eta gogo gutxiago erakusten dute. Baieztapen honekin ondorioztatzen da adinak eragin negatiboa duela ikasleen irakurzaletasunaren garapenean, irakurzaletasunak gorantz egin beharrean beherantz egiten baitu. Ikusi ahal izan den moduan, urteak bete ahala, ikasleek interes, gustu, motibazio eta ohiturak aldatzeko joera dute. Ondorio hauek ere Fiz, Olea, Goicoechea eta Ibiricuk (2000) burutu zuten ikerketaren emaitzekin bat egiten dute. Hizkuntza aukeraren kasuan, zehazki, gero eta nagusiagoak izan, gaztelaniaz irakurtzeko joera handitu egiten dela nabarmentzen da eta, eskola-

liburutegiari dagokionez, hura bisitatzeko gogoak beherakada izugarria du eta eskola-liburutegian egin nahi dituzten jarduerak ere aldatu egiten dira..

Honi modu eraginkor batean aurre egin ahal izateko, eskola-liburutegiko jarduerak eta ekintzak haientzako erakargarriak diren ala ez aztertu eta kontuan hartu beharko litzateke; hots, eskolek haien ikasleen irakurzaletasun faltaren zergatiak aztertu eta haiei irtenbidea emateko pausua eman beharko lukete. 3.zikloko ikasleen kasuan, esaterako, Teknologia Berriak erabiltzeko zaletasuna dutela frogatu da; beraz, interesgarria izango litzateke IKTen erabilera sustatzea irakurketa, eta irakurzaletasuna, bultzatzeko. Hau guztia kontuan hartuta eta gure ikerketek erakutsi moduan, esan daiteke eskoletan irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak gehiago lotu behar direla gaur egungo ikasleen profilarekin. Baina, aurrean esan bezala, ezinbestekoa da lehenago irakasleak irakurketaren inguruan prestatzea, unibertsitatetik (Irakasleen Unibertsitate Eskolatik) hasita. Era berean, maisu-maistren lan-bizitzan zehar ere prestakuntza jasotzea komenigarria izango litzateke, batez ere datozen ikasleei (haien ikas-prozesuari, ikasteko premiei, interesei...) egokitzeko.

Proposamen modura, eta helduak umeentzako eredua direla jakinda, gurasoek praktikan jartzeko zenbait aholku planteatu daitezke, azken hauek tematiak izan behar baitute haien seme-alaben irakurketarekin. Familiek ere etxean irakurketa sustatzeko saiakera handiagoa egin beharko lukete, seme-alabek ulergarritasuna eta interesa handitzea nahi badute. Matak (2008) eta Girbések (2016) dioten legez, ikasleen irakurtzeko gustuak eta interesak errespetatu beharko lirateke eta, are gehiago, ez lirateke gutxietsi beharko. Horregatik, gomendagarria izango litzateke gurasoek haien seme-alaben interes eta nahiak ezagutzea (galderak eginez, adibidez) eta hainbat irakurgai proposatzea haurrek haien artean gustukoena aukeratzeko. Horretaz aparte, irakasleekin uneoro kontaktuan egon beharko lukete, azken hauek umeekin ordu asko ematen dituztenez, sakontasunez ezagutzen baitituzte. Irakasleek, hortaz, gustuko eta zailtasun mailaren arabera irakurgaiak gomendatu ahal dizkiete guraso zein ikasleei.

Amaitzeko, lan honek zenbait muga izan dituela aipatu beharrekoa da. Lehena, ikerketa eskola konkretu batean burutu dela, eta beraz, emaitzak balioztatzeko lagin handiago batekin lan egitea komeni da. Hurrengo ikerketa batzuetarako, beraz, ikas-metodologia desberdinak erabiltzen dituzten eskoletako ikasleen artean alderatzea proposatzen da.

Aurrerago esan bezala, eskola-liburutegiak proposatzen dituen ekintza eta jarduerak ikasleen irakurzaletasuna handitzen laguntzen duten azter daiteke, zein ekintzak duen arrakasta handien jakiteko eta arrakasta gutxien dutenak aldatu edo moldatzeko. Azkenik, ikasleek gustuko liburu edo irakurgairik ez aurkitzearen zergatia ikertzea ere interesgarria izango litzateke, hurrengo batean ikasle edo seme-alabei zer proposatu jakiteko. Hau guztia ikasle nagusiengan, batez ere, azpimarra jarritz eta haienzako konponbideak bilatuz.

7. BIBLIOGRAFIA

- Amara Berri Sistema. Printzipio metodologikoak. [2017/07/17] URL helbidea: <http://noeliaalvarez20.wordpress.com/2012/11/13/nuevos-profesionales-bibliotecas-y-asociaciones-bibliotecas/>
- Aritmendi Villanueva, Á. L. (2012). El maestro y la educación lectora: apoyo, seducción y contagio. *Mi biblioteca: La revista del mundo bibliotecario*, 28, 44-47.
- Camacho, A. eta Lombide, P. (2000). Zertan ikasi behar da irakurle trebea izateko? *Ikasbil*, 2016-12-12an hartuta, hemendik: <http://www.ikasten.ikasbil.eus/mod/boga/file.php/4maila/B4irakasle/0-1/irakasle/Zertan%20ikasi%20behar%20da%20irakurle%20trebea%20izateko.htm>
- Clark, C., Torsi, S., eta Strong, J. (2005). *Young People and Reading. A school study conducted by the National Literacy Trust for the Reading Champions initiative* (1. ed., 17-35 or.). London: National Literacy Trust. 2017-02-25ean hartuta, hemendik: http://www.literacytrust.org.uk/assets/0000/0765/Young_people_reading_2005.pdf
- Eustat (d.g). Bermeoko datu estatistikoak. Eu.eustat.eus.* 2017-08-30ean hartuta, hemendik: http://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/bermeo.html
- Fiz, M. R., Olea, M. J., Goicoechea, M. J., eta Ibiricu, O. (2000). Los hábitos de lectura y su relación con otras variables. *Huriarte de San Juan. Filología y Didáctica de la Lengua*, 5, 7-31.
- García Muñiz, S. (2010). Las mejores actividades de animación a la lectura. *Revista de Bibliotecas Escolares*, 2016-12-12an hartuta, hemendik: http://web.educastur.princast.es/proyectos/abareque/web/index.php?option=com_k2&view=item&id=383:las-mejores-actividades-de-animaci%C3%B3n-a-la-lectura&Itemid=133
- Girbés, J. C. (2016). *El método definitivo para tener hijos lectores: consejos y recetas milagrosas que garantizan el éxito escolar*. Barcelona: Fundació Jaume Bofill.
- Lockwood, M. (2011). *Promover el placer de leer en la Educación Primaria*. Madrid: Ediciones Morata.
- Lomas, C. (2003). Leer para entender y transformar el mundo. *Revistas Universidad Distrital Francisco José de Caldas*, 2016-12-05ean hartuta, hemendik: <http://revistas.udistrital.edu.co/ojs/index.php/enunc/article/view/2478>
- Lomas, C., Mata, J. eta Monte, A. (2007). La construcción del hábito lector. *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura*, 44, 9-18.
- Mata, J. (2008). *10 ideas clave. Animación a la lectura: hacer de la lectura una práctica feliz, trascendente y deseable*. Barcelona: Grao.